

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1541/2020 Ebazpena, ekainaren 15koa, Ogasuneko zuzendariarena, Arabako Lurralde Historikoan iruzurraren aurka Borrokatzeko 2020ko Plana hezurramitzen duten irizpide orokorrak aditzera ematen dituena

Arabako Foru Ogasunaren lehentasunezko helburua Lurralde Historikoan zerga iruzurraren aurka borrokatzea da. Horrela, norberaren gaitasun ekonomikoaren arabera, denek gastu publikoari eusteko lagundu behar dutela dioen oinarritzko printzipioa betetzen dutela berma dezake.

Horrenbestez, Arabako Foru Ogasunak zenbait jarduera ildo ezarri ditu, iruzurraren aurka eraginkortasun handiagoarekin borrokatzeko ezinbestekotzat jotzen dituena. Hauek dira:

1. Zergadunek beren zerga betebeharrak borondatez bete ditzatela sustatzea, informazioa hobetuz, zerbitzuak pertsonalizatuz, kudeaketak arinduz eta zergadunari eskura dituen aukera guztiak azalduz.

2. Iruzurrari aurrea hartzea, hots, iruzur arriskuak alde aurretik identifikatzea, prebentzio neurriak hartuz eta aldian-aldian iruzurraren eboluzioa zainduz.

3. Iruzurrezko portaerak aurkitzea eta erregularizatzea.

4. Zerga zorren kobrantza kudeatzea, bai borondatezko aldian, bai betearazte aldian.

Jarduera arlo horiek garatzeko helburuarekin, Arabako Foru Aldundiaren zerga iruzurraren aurka borrokatzeko planaren irizpideak egiten dira urtero.

Egoera horretan, kontuan hartu behar da Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 112. artikulua (otsailaren 28koa, 6/2005 Foru Araua). Honako hau ezartzen du berariaz:

“Zerga Administrazioak urtero-urtero egingo du iruzurraren kontra egiteko plan bat, eta isilpekoa izango da, nahiz eta hori ez den eragozpen izango hura oinarritzen duten irizpide orokorrak jendaurrean jakitera emateko”.

Hori guztia dela eta, 6/2005 Foru Araua otsailaren 28koaren 112. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, honako hau

EBAZTEN DUT

Onestea Arabako lurralde historikoan iruzurraren kontra egiteko 2020ko plana hezurramitzen duten irizpide orokorrak –Eranskinean datoz aipaturik–, eta ALHAOn argitara daitezela agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 15ean

Ogasun zuzendaria
M^a JOSÉ PEREA URTEAGA

ERANSKINA**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO
2020KO PLANA HEZURMAMITZEN DUTEN IRIZPIDE OROKORRAK****1 SARRERA**

Zerga administrazioen funtsezko helburu estrategikoetako bat zerga iruzurraren aurka borrokatzea da, bai ekitate arrazoiengatik, zerga justiziaren printzipioa eraginkortasunez betetzeko, bai arrazoi ekonomikoengatik, iruzurrak baliabide publikoak behar bestekoa izatea eta sistema ekonomikoen egonkortasuna arriskuan jartzen dituelako.

Gure zerga sistemaren antolamendua zergak ordaintzera behartuta dauden pertsonen ahalmen ekonomikoan oinarritzen da, bai eta honako printzipio hauetan ere: justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitatea, zerga kargaren banaketa ekitatiboa eta konfiskaziorik eza.

Iruzurraren kontra borrokatzeko 2020ko Planaren xede nagusia da zergadunek eta zergapeko guztiek zerga betebeharrak betetzen dituztela bermatzea.

Plan hori sustatzen duten jarduerak hau dute elkarren arteko lotura:

– Zergadunei zerbitzu pertsonalizatuak ematea eta teknologia berriak orokortzea betebeharrak borondatez bete daitezzen errazteko, zerga iruzurraren kontra prebentzioz jokatzu.

– Zergaduna sakonean ezagutzeak bere betebeharrak ez betetzeko arriskuak kudeatzen laguntzen du. Horrela, horrekin lotutako kontrol eta ikuskapen ekintzak errazago antolatzen dira.

– Aztartzea eta ustiatzea eskuragarri dauden iturrietatik lortutako informazio zerga aldetik garrantzitsua, hala nola zergapekoen aitortpenak, berariazko errekerimenduak eta beste zerga administrazio eta erakunde batzuekin egindako informazio trukeak eta lankidetzak.

– Iruzurra atzemateko aztarna berriak aurkitzeko beharrezkoak diren informatika tresnak hobetu eta ezartzea, erabakiak hartzea eta iruzurraren kontra borrokatzea.

Horrek guztiak badu alderdi bat betebeharrak nork bere borondatez betetzea erraztu nahi duena, zerga iruzurraren kontra prebentzioz jokatzu.

Halaber, zerga iruzurra egiaztatu eta ikertzen da, baita bilketa fasean kontrolatu ere. Horretarako ezinbestekoa da informazio zabal eta ona izatea.

Arabako Foru Ogasunaren Iruzurraren aurka egiteko 2020ko Plana oinarritzen duten irizpide orokorrak osatzen dituzten jardunak hiru kategoria handitan sartzen dira:

a) Informazioa lortzeko jardunak. Halakotzat hartzen dira zerga arloko informazioa lortzeko, normalizatzeko eta aztertzeko jardunak, zergadunari bere zerga betebeharrak berez betetzen laguntzeko, aitortutako datuen inkongruentziak aurkitzeko eta zergak aplikatzeko prozedurak ezarriko zaizkien zergapekoak hobeto hautatzen laguntzeko helburuarekin.

Berez, zuzenean iruzurrezko zenbatekorik emango ez duten jardunak dira, baina lortutako informazioari esker lotutako zerga arloko jardunak erregularizatzeko, eta horiek ekarritako zorra kobratzeko beharrezkoa den aurretiko fasea osatzen dute.

Horrenbestez, jardun horiek funtsezkoak diren edozein zerga administrazioarako, zerga iruzurraren aurkako borrokan eraginkorra izan nahi badu.

b) Prebentzio jardunak. Halakotzat hartzen dira iruzurra gertatzea zailtzen duten eta hori gertatzeko arriskuak txikiagotzen dituzten neurriak. Barne hartzen dira besteak beste zenbait zerga arrisku egoeretara sartzeko kontrolak, zerga arloko jardunbide egokiak sustatzea eta herritarren eta zerga balioen aurrean sentikor agertzea eta horietan trebatzea. Zuzen ezartzen badira, zergapekoen iruzurrezko jardunak saihestuko dira, eta horiei aurrea hartuko zaie.

c) Erregularizatzeko eta kobratzeko jardunak, kudeaketa eta ikuskapen organoek garatutako zergak aplikatzeko prozedurak ezarri zaizkien zergapekoen zerga egoera egiaztatzeko, ikertzeko eta erregularizatzeko direnak. Baita zergak biltzen dituzten organoek garatutako jardunak ere, zergapekoen zorrak borondatezko aldian nahiz betearazte aldian ordaintzeko helburu dutenak.

Hiru motatako jardun horiek eraginkortasunez gauzatzeko, alde batetik, informazioa arina eta eraginkortasun handiagoarekin tratatzen laguntzen duen garapen teknologikoak indartu behar dira; bestetik, Arabako Ogasunaren barruan zergak aplikatzen dituzten organoek lankidetzan aritu behar dute. Horrez gain, Foru Ogasunak eta beste erakunde batzuek lankidetzan ere aritu behar dute.

Oro har, 2020. urtean egin beharreko jardunak eta irizpide orokorrak biltzen dituen Arabako Lurralde Historikoan Iruzurraren aurka Borrokatzeko Planak jarraitutasun ildo bat du aurreko urteko planen ikuspegiarekin, eta koherentzia maila handia du egiturari eta edukiari dagokienez. Horri esker, ezagutza eta esperientzia handiagoa izan daiteke aurreikusitako jardunei ekiteko eta, beraz, emaitza hobea lortzeko.

Bestalde, COVID-19k sortutako salbuespenezko egoerak, alarma egoera deklaratzearekin eta zerga prozedurak etetearekin batera, eragina izan dezake Iruzurraren aurka egiteko 2020ko plan hau betearaztean.

2. EGIN BEHARREKO JARDUNAK, 2020AN IRUZURRAREN KONTRA EGITEKO PLANEAN AURREIKUSIAK

2.1. INFORMAZIOA ESKURATZEKO JARDUNAK

Zergapekoen zerga arloko informazioa lortzeko, normalizatzeko eta aztertzeko jardunak funtsezkoak dira, erregularizatzeko eta kobratzeko jardunen aurreko fase gisa batik bat, izan ere, jardun horiei esker aukeratu daiteke zein zergapekori egingo zaizkion egiaztapenak era eraginkorragoan.

Horrenbestez, jadanik egindako zerga irregulartasunak aurkitzeko eta erregularizatzen eta kobratzen laguntzeko beharrezkoa den informazioa ematea da helburua.

Informazioa lortzeko jardun horiek arlo hauetan garatuko dira 2020. urtean:

1.) Zerga arloko informazioa trukatzeko nazioarteko akordioak ustiatzea, Arabako Ogasuneko pertsona eta erakunde zergapekoek atzerrian dituzten ondasun eta eskubideak aurkitzeko.

Bai zuzenean, bai beste pertsonen edo erakunde batzuen bidez, ondare elementuak eta errentak atzerrian izateak, iruzurrezko jokabideak aurkitzen zailtzen du. Nazioarteko erkidegoan zenbait neurri ezarri dira jokabide horiek saihesteko mekanismoak ezartzeko. Horretarako, herrialdeek euren artean informazioa trukatzeko tresna garrantzitsuak sortu dira, hala nola Espainiako erresumaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko akordioa; nazioarteko zerga betebeharrak hobeto betetzeko, eta Foreign Account Tax Compliance Act – FATCA ezartzea (atzerriko kontuen zerga betebeharrak betetzeko Legea), 2013ko maiatzaren 14an Madrilen egindakoa; eskumeneko agintarien arteko akordio aldeaniztuna, finantza kontuen informazioaren truke automatikoari buruzkoa, Berlinen, 2014ko urriaren 29an formalizatutakoa, eta Europar Batasunaren esparruan, Kontseiluaren 2014/107/EB zuzentaraua, 2014ko abenduaren 9koa, 2011/16/EB zuzentaraua aldatzen duena, zerga fiskaltzaren esparruan, informazioaren truke automatikoa nahitaezkoztat jotzen duena.

Horrela, hirugarren herrialdeetatik datorren informazioa eskuratzeko prozedurak eta sistematik hobetuko dira 2020an, AEATrekin lankidetzan. Horri esker, informazioa aztertu eta ogasuneari dagoen informazioarekin eta era selektiboan lortzen denarekin alderatu ondoren, erregularizatzeko eta kobratzeko dagozkion jardunak egingo dira.

Informazio hau bereziki aztertuko da:

– AEBko finantza erakundeetako finantza kontuen informazioa, bizilekua foru lurraldean duten pertsonen edo erakundeen titulartasuna. (FATCA).

– Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duten pertsona eta erakundeek beste estatu batzuetan lortutako errenta kategoria jakin batzuei buruzko informazioa (mendeko lan etekinak, administratzaile eta kontseilarien ordainsariak, bizi aseguruaren produktuak, ondasun higiezinak jabetzak eta higiezinak). (DAC 1).

– Gainerako estatu kideetako (DAC 2) eta ELGAren barruko hirugarren herrialdeetako (CRS) finantza erakundeetan dauden finantza kontuen informazioa, bizilekua foru lurraldean duten pertsona edo erakundeen titulartasuna.

– Tax rulings eta mugaz haraindiko APA akordioei (transferentzia prezioei buruzko aurretiko akordioak) buruzko informazioa, foru lurraldean helbidea duten pertsona edo erakundeetan eragina badute. (DAC 3 eta BEPS planaren 5. ekintza).

2.) Nazioarteko fiskalitatean eragiketak egiten dituzten zergapekoak aztertzea.

Arabako Foru Ogasunak gero eta arreta handiagoa jartzen dio nazioarteko zerga iruzurrari.

Arlo horretan, lotutako eragiketen zerga tratamendua funtsezkoa da, eta Europar Batasuna nahiz ELGA ahalegin berezia egiten ari dira haiek aztertzen. Hain zuzen ere, ELGAK egindako azken lanak, BEPS proiektuaren barruan egindakoak, funtsezko azterketa tresnak dira nazioarteko zerga iruzurra aurkitzeko eta horrekin amaitzeko.

Espainiako Erresumak agintari eskudunen arteko akordio aldeaniztuna sinatu zuen beste 30 estaturekin 2016ko urtarrilaren 27an, "herrialdez herrialdeko txostena" trukatzeko. Akordio hori ELGAren BEPS proiektuan barne hartzen da, eta nazioz gaundiko merkataritza taldeen transferentzia prezioen politikan arriskuak ebaluatzeko aukera ematen duen tresna da. Horrez gain, 2016ko maiatzaren 25eko Kontseiluaren 2016/881 zuzentarauak (EB) 2011/16/EB zuzentaraua aldatu du, eta informazioaren truke automatikoa multinazional talde handiek aurkeztu behar dituzten "herrialdez herrialdeko txostenetara" ere zabaldu du.

Aurreko urteetan bezala, 2020an, Arabako Ogasunak zenbait jardun egingo ditu, Arabako pertsona eta erakunde zergapekoek informazioa emateko betebeharrak horiek betetzen dituztela ziurtatzeko eta informazioa automatikoki trukatzeko nazioarteko akordioak baliatuz aipatutako taldeei buruz lortzen den informazioa ustiatzeko.

– Zentzu berean, Araban dauden multinazional taldeen informazioa ustiatuko da, taldeko zenbait zerbitzu komunei buruzkoa, hala nola kudeaketan laguntzeko zerbitzuak, ukiezinak lagapena, merkataritza zerbitzuak edo beste zerbitzu orokor batzuk. Izan ere, gerta daiteke fakturatzeko ez egotea, edo zuzen fakturatzeko ez egotea. Horrenbestez, Arabako Ogasunean aitortu behar diren liratekeenak baino sarrera gutxiago gertatzen ari dira.

– Nazioarteko esparru honetan, informazioa lortzeko jardunak ere egingo dira, zergak ez ordaintzea helburu duen edozein zerga arloko trikimailu aurkitzeko helburuarekin, bereziki finantza gastu artifiziosuen edo gehiegizkoen kenkaria aplikatzen ari diren sozietate taldeak aurkitzeko.

– Paradisu fiskalekin duten loturarengatik, zerga iruzurra egiteko arrisku handiagoa duten zergapeko, eragiketa eta jurisdikzioak aztertuko dira. Xede horretarako, dibisen trafikoa buruz jasotako informazioa aztertuko da, zerga ordainketa gutxiko edo zerga ordainketarik gabeko lurraldeetan egindako eragiketak aurkitzeko.

– Azkenik, pertsona eta erakunde ez-egoiliarrek Arabako Lurralde Historikoan egindako jarduerengatik duten zerga ordainketa aztertuko da.

Jardun horien bidez, Espainiako lurraldean bizi ez diren Arabako zergadunek izandako errenten zergak zuzen ordaindu dituzten aztertuko da, lurraldetik kanpo etengabe bizi diren edo ez kontuan hartuz. Kanon, royaltie eta dibidendu gisa ez-egoiliarrei egindako ordainketei batik bat erreparatuko zaie.

Halaber, informazioa lortzeko jardunak egingo dira, Arabako Lurralde Historikoan atzerriko enpresa gisa hartzen ez diren halako enpresak dauden ala ez aztertzeko.

3.) Aldizka zergen arloko foru administrazioekin, lurralde erkidekoekin eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetakoak direnekin egiten diren informazio truke prozesuak finkatzea, garatzea eta handitzea, eta zerga arloko informazioa trukatzeko prozesuak handitzea eta hobetzea beste administrazio eta erakunde publiko batzuekin, zerga arlokoak ez direnekin.

Foru ogasunek EAEko Administrazio Orokorrekin duten harremanari dagokionez, aurreikusita dago 2020an eguneratu eta berritu egingo direla 2016an sinatutako informazio truke-rako esparru hitzarmenak, iraungi ondoren jarraipena emateko. Era berean, hitzarmen horien babesean aztertuko dira urtean zehar sor daitezkeen eta aldizkako informazio eskaera berriak, zerga iruzurraren aurkako borrokan erabilgarria dena.

4.) Informazioa lortzeko aldizkako eta araututako beste bide batzuk eguneratzea, hala nola oro har ezarritako informazio eredu bidez ezartzen direnak, lurralde historiko bakoitzaren zergei buruzko foru arau orokorrean ezarritako informatzeko betebeharrak orokorra betetzeko.

5.) Zerga arloko informazio bilketa masiboak egingo dira, informazio eredu bidez oro har aurkezteko betebeharrak ezarrita ez badago. Jardun horien helburua da beren jarduerak zerga arrisku handiko sektore ekonomikoetan garatzen duten zergapekoei buruzko informazioa handitzea eta hobetzea.

Besteak beste jardun hauek egingo dira:

a) Informazioa lortzeko jardunak, pertsona eta erakunde zergadunek eragiketarak aurkitzeko lotura puntuak zuzen aplikatzen dituztela egiaztatzeko, hau da, zergen arloan Ekonomia Itunean ezartzen direnak, bereziki Arbitraje Batzordearen azken ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren epaietan ezarritako interpretazio irizpideen arabera. Arreta berezia jarriko zaie abenduaren 28ko 10/2017 Legearen bidez, Ekonomia Itunaren aldaketa indarrean sartzearen ondorioz sortu diren lotura puntu berriei.

b) Balio erantsiko zerbitzuak emateko jarduerekin lotura duten berariazko informazio eskaerak, eta bereziki, azken kontsumitzaileentzat zuzenduta egoteagatik, zerga administrazioak beste baliabide batzuen bidez nahikoa informazioa ez dituenetan, iruzurrezko jarduerak egiten dituen zantzuak badaude.

c) Berariazko informazio eskaerak, zerga arloan, kengarritzat hartzen ez diren gastuak eta ekonomia jarduerekin zerikusia ez duten kontsumo pribatuak aurkitzeko.

d) Higiezinaren sektorean egindako eragiketarak ikertuko dira, eta bereziki eraikinetako birgaitze lanen zerga ordainketarak, balio erantsiaren gaineko zerga ongi jasanarazi duten aztertzeko.

6.) Informazioa lortzeko jardunak, ekonomia digitalaren eta negozio eredu berrien esparruan.

Enpresa arloan teknologia berriak aplikatzeak, eta ekonomiaren gero eta digitalizazio handiagoaren prozesuarekin zerikusia duten negozio eredu berriak ugaritzeak, erronka handia dakarte, zergak kontrolatzeko batik batik, negozio eredu berri horiek aurkitu behar direlako eta zergak zuzen ordaintzen dituztela egiaztatu behar delako.

Ekonomiaren digitalizazioak barne hartzen ditu bai merkataritza elektronikoa, hau da, produktu fisikoak edo zerbitzuak sarean saltzea, berariazko truke plataformen bidez, bai ordaintzeko zerbitzu edo plataformak, aplikazioak eta produktu digitalak deskargatzeko plataformak, online publikitateak, sare parte-hartzaileen plataformak (gizarte sareak direlakoak), edo hodeiko programazioa ("cloud computing" gisa ezaguna dena), bestelako negozio eredu artean.

Eremu horretan, 2020an ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko aukera ematen duten plataforma digitaletatik lortutako informazioa aztertuko da, bereziki, helburu turistikoetarako etxebizitzaren erabilera lagatzeari buruz lortutako informazioa.

7.) Informazioaren berehalako horniduraren sistemaren (IBH) bidez jasotako informazioa aztertzea eta ustiatzea.

8.) Sistema informatikoak gehiago kontrolatuko dira, informatika auditoretza jardunak sustatuz. Horiek, zergadunen bulego edo lokaletara bertaratzeko ekarriko dute, informazioa biltzeko.

Horrez gain, ekonomia jarduerak garatzen dituzten zergadunek zentsu aitortpen betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko jardunak, eta aitortu gabeko jardunak aurkitzeko jarduerak egiten jarraituko da.

Informazioa lortzeko jardun horiek guztiak garatzeko, Arabako ogasunaren zergak aplikatzeko eskumenak dituzten organoak oreka egokia lortzen saiatuko dira zerga iruzurraren aurka borrokatzeko eraginkortasunaren eta datu pertsonalen babesari buruzko arautegian ezarritako datuen kalitate eta proportzionaltasun printzipioaren arabera.

2.2. IRUZURRARI AURREA HARTZEKO ETA ANTZEMATEKO JARDUNAK

Kategoria honetan barne hartzen dira bai kontrol jardunak, iruzurrezko jokabideak egitea aurkitzeko eta saihesteko, bai zerga betebeharrak berez eta borondatez betetzen laguntzen dutenak. Helburua herritarren zerga kontzientzia indartzea eta zergadunei laguntza eta informazioa ematea da.

Hala, Arabako Foru Ogasunak honako jardun hauek gauzatuko ditu 2020an:

1.) Garapen teknologikoen oinarritutako proiektuak, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunen kontrol handiagoa lortzeko helburuarekin.

Ekonomia jarduerak garatzen dituzten pertsona edo erakunde guztien zerga ordainketa osorik kontrolatzeko sistemak ezartzea, haien tamaina edo eragiketen bolumena edozein dela. Horren helburua iruzurra, egin aurretik, prebenitzea da, eta foru ogasunak azken urteetan bultzatzen ari dira.

Ekimen hori egiteko, oso garrantzitsua da aurrerapen teknologikoak erabiltzea, herritarrek beren zerga betebeharrak bete ditzaten, eta betetzen ez dituzten zergadunen iruzurra jazartzeko.

Esparru horretan hiru proiektu nabarmentzen dira:

I. TicketBAI proiektua

TicketBAI proiektuaren helburua da jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsonak eta erakundeak egindako salmenta eragiketa guztien aitortpena ziurtatzea. Proiektu horretan, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza 2016tik ari dira lanean.

Gure inguruko herrialdeen esperientzian oinarrituta, eta Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA, aurrerantzean) 2013. eta 2017. urteetako txostenean («Salmenten ezabapen elektronikoa: zerga sarreretarako mehatxu bat» eta «Ihes fiskala eta iruzur fiskala saihesteko tresna teknologikoak» hurrenez hurren) jasotzen diren gomendioei jarraituz, TicketBAI proiektuaren helburua da bermatzea jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonak eta erakundeak salmenta eragiketa guztiak aitortzen dituztela.

Urte anitzeko proiektu horren helburua da legezko zenbait betebeharrak eta betebeharrak teknikoak ezartzea da, zerga administrazioak jarduera ekonomikoaren sarrerak kontrola ditzan; bereziki horiek ezkatatzeko joera duten sektoreetan barne hartzen diren jarduerak, azken kontsumitzaileei zerbitzuen ondasun edo prestazioak entregatzen dizkietelako eta neurri handi batean eskudirutan kobratzen direlako.

2018an, "TicketBAI" kontrol sistemak bete behar dituen zehaztapen teknikoak landu ziren, eta zenbait proba egin ziren gaur egun dauden sistema eragile informatikoetan behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko, sistema horien neutraltasun teknologikoa bermatzeko aldera.

"Halaber, "IoT" (Internet of Things, hots, gauzen Internet) teknologiaren barruan, "TicketBAI!" sistemak baliabideak ezarri nahi ditu fakturazio gailuek egindako jatorrizko salmenta erregistroak gordetzen diela eta zerga administrazioari bidaltzen zaizkiola bermatzeko, hau da, azken kontsumitzaileen taldeari igorri zitzaion egoera berean edo eduki berarekin.

2019an baterako proiektuan erakunde arteko lankidetzak formalizatzeko eta erakundeek haren antolaketan, diseinuan, garapenean, gauzatzean eta identifikazioan duten partaidetza erregimena arautzeko hitzarmena sinatu zuten. Era berean, 2019an, TicketBAI sistemaren funtsezko elementuak ezartzeko beharrezkoak ziren garapen teknikoak amaitu ziren, jarraitu beharreko zehaztapen teknikoak osatu ziren, fakturazioa kontrolatzeko sistema berri hau ezartzeko beharrezko arau egokitzapenak garatu ziren, eta proba pilotu bat egin zen fakturazio softwarea duten enpresekin, haren funtzionaltasuna aztertzeko.

2020an, zenbait jarduketa egitea aurreikusi da, TicketBAI sistema Araban ezartzeko, gainerako lurralde historikoekin batera. Jarduketa horiek eragina izan dezakete, COVID-19k sortutako salbuespeneko egoeragatik, bai gauzatzean bai indarrean jartzean ere.

Zehazki, aurreikusita dago jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisiko guztien eta pertsona juridikoen tributazioa kontrolatzeko aipatu den estrategia horren ezarpena arautuko duten arau-xedapenak izapidetzea, horien tamaina edo eragiketa bolumena edozein dela ere; horretarako, zergadunek neurri teknologiko aurreratuak erabili beharko dituzte nahitaez, fakturazio sistemetakoa tresna teknologiko berrien bidez.

Horrela, ondasun-emateak eta zerbitzu-emateak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatuko dituen sistema informatiko berri bat ezartzearen ondorioz sortzen diren betebeharrak ezarriko dira.

TicketBAI betebeharrak berria Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren foru-arauetan taxutuko da, zerga hori ordaintzen duten establezimendu iraunkorrei dagokienez, eta, horrez gain, kasuan kasuko erregelamenduzko garapenen bidez, sistemaren berezitasunak arautuko dira.

Era berean, aurreikusita dago erregistro publiko bat gaitzea, non inskribatuko baitira TicketBAI betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren software espezifikoak, bai eta betebeharrak horiek garatuko dituzten pertsonak edo erakundeak ere.

Bestalde, dagozkion komunikazio eta dibulgazio ekintzak egingo dira, TicketBAI betetzera behartuta dauden pertsona eta erakundeek eta gainerako herritarrek sistemaren funtzionalitateak ezagutu ditzaten eta haien eskakizunetara egokitu daitezten.

II. Iruzur fiskalari aurre egiteko software tresnen soluzio integratua eskuratzea

Arabako Ogasunak software tresnen soluzio integratu bat kontratatuzko lizitazioarako deialdia eta adjudikazioa egin zuen 2019an, zergen eta iruzurraren jokaera ereduak ereduak aztertzeko.

Lizitazio horren xedea zen gaur egun prozesa daitezkeen datu ugari baliatzea, iruzur fiskala detektatzeko sistema automatizatuagoa eta eraginkorragoa garatzeko.

Datuen analisis oinarritutako iruzurra detektatzeko metodologiek orain arte erabilitakoek baino zehaztasun handiagoa ekartzen dute. Hauek dira, funtsean, datuak aztertzeko metodo berriak:

— Datuen azterketa deskribatzailea: portaera arruntetik urruntzen diren Arabako zergadunen portaerak aurkitu nahi dira. "Ikuskapenik gabeko teknikak" direlakoak dira, izan ere, ez dute eskatzen erabilitako behaketa bakoitza iruzurra egin zuten zergadunengandik lortu den ala ez jakitea. Teknika horiek, iruzur historikoa ez den iruzurra aurkitzeko aukera ematen dute, hau da, mekanismo berriak eta ezezagunak erabiltzen diren iruzur eredu berriak erakusten dituzte.

– Analisi prediktiboa, “ikuskatutako ikasketa teknikekin” bat datorrena. Xedea da Foru Ogasunak dituen egiaztatzeen datu historikoetatik ikastea, portaera arrunta eta iruzurrezko portaera bereizteko aukera ematen duten ereduak ulertzeko.

– Harremanen sareak aztertzea. Horrek, analisisian informazio iturri osagarri bat barne hartzeko aukera ematen du (zerga sisteman esku hartzen dutenen arteko harremanak, bai erakundeak bai pertsonak). Iruzur zantzu gisa balio duten eredu bereziak aurkitzen lagun dezake horrek.

Teknika horiek osagarriak dira. Horrela, iruzurra aurkitzeko eta prebenitzeko sistema eraginkor batek, tresna horiek erabili eta konbinatuko ditu.

Hartutakoa irtenbide integratua da, Arabako Foru Ogasunari lagunduko diona iruzurraren aurka borrokatzeko behar diren ereduak ezartzen unitate funtzional desberdinetarako. Honako hauek egin ahal izango ditu:

1- Iruzurra antzemateko prozesuaren eraginkortasuna areagotzea:

a) Iruzurraren ikuspegi integrala eraikitzea erakunde osoan, iruzurra detektatu eta prebenitzeko beharrezkoak diren datu iturri guztiak integratuz eta araztuz.

b) Iruzur eredu berri ezezagunak, elkarteen iruzur eredu berriak eta iruzur eredu konplexu berriak antzematea; horri esker, nabarmen handitu dira antzemandako iruzur ratioak.

c) Detekzio ereduak definitutako estrategietara egokitzeko aukera; horretarako, arreta berezia jarriko zaie arrisku handieneko kasuei, biltzeko ahalmen handieneko kasuei, kobratzeko aukera handieneko kasuei eta abarrei.

2- Ikerketa prozesuaren eraginkortasuna areagotzea:

a) Positibo faltsuak murriztuz, ikuskatu ondoren iruzur ez diren alertak.

b) Ikuskaritza jarduerari lehenetsua ematea ahalbidetzen duen ikuspegia ezarriz, eta ikuskatzaileen lana iruzurrerako joera handiena duten kasuetan jarriz.

c) Lan esparru integratu bat ezarriz, zehaztutako estrategien emaitzen jarraipen etengabea ahalbidetuko duena.

Hartutako konponbidea iruzurraren aurkako prozesu osora zabalduko da: datuen integrazioa, analisia eta antzematea, ikerketa eta jarraipena Konponbidearen garapenak funtzionaltasun osoa ekarriko du iruzurraren aurka egiteko funtsezko arloetan, hala nola:

1. Datuen integrazioa eta kalitatea.

2. Data Mining eta modelizazio prediktiboa Jokaera ereduak.

3. Testu meatzaritza egituratu gabeko informazioa kudeatzeko ...

4. Sareen azterketa, korrelazio konplexuak antzemateko.

5. Iruzur adierazleen jarraipenerako aginte taula.

6. Ikerketa ataria, kudeatzaileek edo ikuskatzaileek xehetasunez aztertu izateko iruzurra egiteko joera handiena duten subjektuak, eta ahalik eta modu eraginkorrean eta efizienteenean planifikatu ahal ditzaten hautaketa edo berrikuspen jarduerak.

III. Informazioaren Berehalako Hornidura (IBH)

2018. urtean Informazioaren Berehalako Hornidura (IBH) sartu zen indarrean Araban, BEZa kudeatzeko.

Sistema horrek zenbait subjektu pasibori (hileko itzulketen erregistroan inskribatutakoak, enpresa handiak eta BEZ taldeak) zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Ogasunaren egoitza elektronikoaren bidez eramatea ezartzen die, epe laburrean fakturazio erregistroak aurkeztuta. Horrela, zer jarduera fakturatu den berehala jakin dezake Foru Ogasunak.

IBH abian jartzeak aldaketa ekarri du BEZa kudeatzeko gaur egun dagoen sisteman. Horrela, erregistroak egiten direnetik ahalik eta lasterren egiten dira egiaztapenak.

2020an, gainerako foru ogasunekin batera lan egiten jarraituko da zergadunek erabiltzen dituzten web zerbitzuak garatzeko, eta IBHren bidez eskuragarri dagoen informazioa lortzeko eta ustiatzeko tresnak egokitzen jarraituko da.

2.) Ikastetxeetan zerga hezkuntzako proiektua finkatzea.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren lehentasunezko helburuetako bat da zerga iruzurra justifikatzen duten jarrera sozialei kontra egitea. Horretarako, beharrezkoa da gizarteari informazioa ematea, hobeto uler ditzan finantza publikoak eta zergen egitekoa.

Horren helburua da zerga betebeharrak borondatez betetzea, herritarrei iruzur fiskalak ekartzen dituen ondorio negatiboak jakinarazita eta horren bidegabekeriaz ohartarazita. Horrez gain, funts publikoen xedea ere azaltzen zaie: zer zerbitzu ematen diren ordaindutako zergekin, eta horrek nola laguntzen duen Araba lurralde solidario eta orekatuagoa izaten.

Helburu hori betetzeko, 2017an herritarren eta zergen hezkuntza programa bat abian jarri zen. Programa horretan, foru ogasunek lankidetzan dihardute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Ogasun eta Ekonomia Sailarekin ikastetxeetan ekonomia eta fiskalitateari buruzko oinarrizko ezagutzak sartzeko. Horrela, txiki-txikitatik, zerga aldetik iruzurrezkoak diren jokabideei zilegitasuna kenduko zaie.

Proiektuarekin jarraitzeko asmoa eta 2017/2018 ikasturteko esperientziaren balorazio ona kontuan hartuz, erakunde sustatzaileek hezkuntza programa beste hiru ikasturte luzatzea egokitzen jo zuten, hots, 2021. urtera arte.

3.) Informazio eta laguntza zerbitzuak ematea, zerga betebeharrak borondatez bete daitezela sustatzeko, eta funtzionarioen berariazko prestakuntza bultzatzeko.

2020. urterako helburua arlo honetan zergadunei autolikidazioak eta aitorpenak egiteko emandako laguntza hobetzen jarraitzea izango da.

Zehazki, laguntza programen bidez emandako laguntza indartuko da, autolikidazioak egiteko. Horrela, Arabako Ogasunean dauden hirugarren pertsonen emandako zerga arloko datuak haietan sartzeko aukera emango dute. Halaber, hobekuntzak egingo dira zergadunek emandako zerga informazioan, bai kantitateari dagokionez, bai ikusten diren datuen kalitateari dagokionez.

Era berean, jardunen kategoria horren barruan, aurretiko administrazio lotura prozedurak erabiliko dira, gure zerga zuzenbidearen segurtasun juridiko eta ziurtasun giro bat ezartzeko, bere jardunaren zerga ondorioen egonkortasun, konfiantza eta aurreikuspen berme nahikoak eman ditzan eragile ekonomiko guztietarako.

Barne prestakuntzari dagokionez, zerga arloak eskatzen duen etengabeko prestakuntzaz gain, prestakuntza indartuko da gai espezifikoei, hala nola nazioarteko fiskalitatean edo egiaztapen prozeduretan auditoria informatikoko tresnen eta tekniken erabileran.

4.) Horrez gain, aurreko urteetan bezala, jardun hauek egiten jarraituko da:

a) Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatuko dira eta erregistro horretako eragileen jarraipen lanak egingo dira, sarrera eskatzen dutenei ezezkoa emateko edo erregistratuta dauden eragileei badaezpada baja emateko, behar denean.

Batasunaren barruko eragiletan egiten dituzten eragile horien kontrol egokia ezinbestekoa da Batasunaren barruko BEZean iruzurgile sarerik sor ez dadin.

b) Hileko Itzulketen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretako eragileen jarraipen lanak egingo dira, bai sarrera eskatzen dutenei ezezkoa emateko edo erregistratuta dauden eragileei kautelazko baja emateko, bai iruzurrezko jarduketak egiten dituzten eragileei BEZaren itzulketak egitea galarazteko.

c) Zergadunek enpresaburu, profesionalen eta atxikitzaileen zentsuko alta, aldaketa eta baja aitortpenetan emandako datuak eta, bereziki, zergapekoek aitortutako zerga egoitzak egiazkoak diren aztertuko da.

d) Indarreko arautegian ezarritako kasuren batean dauden erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia indargabetzea.

e) Egiaztatuko da ea zergadunek betetzen ote dituzten informazio aitortpenak aurkezteko betebeharrak, Foru Arauetan ezarritako informazioa emateko betebeharra betez.

f) Arabako Foru Ogasunak aurreko urteetan egiaztatu dituzten jarduera ekonomikoaren sektoreetan sartuta dauden zergadunen zainketa egingo da, egiaztatzearen jarduera horietan azaleratu den errenta mailari eutsi egin zaiola zergadun horiek ondoren aurkeztu dituzten aitortpenetan.

g) Zuzeneko jardunak egingo dira, ezartzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, eta azken kontsumitzaileei ondasunak edo zerbitzuak ematen dizkieten establezimenduek fakturak entregatzeko, bereziki eskudirua erabiltzen duten ekonomia sektoreetan.

Era berean, azterlanak egingo dira establezimendu horiek egindako jarduerak erregistratzeko erabiltzen diren sistema informatikoen azpiegitura teknologikoko erregistroen kontrol eta analisiari buruz.

h) Ogasun Publikoaren zordunen zerrenda argitaratuko da, Arabako zergei buruzko foru arau orokorraren 92. Ter. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Iruzurrezko jokaeren berri emango da, gizarteak jakin dezan. Neurri horren helburua da zergadunek beren zerga betebeharrak borondatez betetzeko sustapena egitea.

2.3. ERREGULARIZAZIO ETA KOBRANTZA JARDUNAK

Jardun horiek, kudeaketa eta ikuskapen organoek garatutako zergen aplikazio prozedurak ezarri zaizkien pertsona eta erakundeen zerga egoera egiaztatzeko, ikertzeko, eta hala badagokio, erregularizatzen dira. Halaber, zerga bilketako organoek zergadunek, bai borondatezko aldi, bai betearazte aldi, ordain dezaten lortzeko garatutako jarduerak ere aztertzen dira.

Erregularizazio jardunen helburua iruzurra egin ondoren kuantifikatzea eta zehatzea da, eta berriro egiten ez dela sinesteko balio dute.

Jarduera horien arrakasta, neurri handi batean, Arabako Ogasuneko organoek egiaztatuko dituzten pertsonak eta erakundeak ongi hautatzearen mende dago; beraz, jarduketa horiek askotan administrazioak informazioa lortzeko jardunak garatzean lortutako zerga arloko garrantzia duen informazioaren kalitatearekin eta hedapenarekin lotuta dago.

Halaber, kudeaketa eta ikuskapen organoek adierazitako zerga zorra kobratzeko, askotan, zerga bilketako organoek informazio egiazkoa eta osoa izan behar dute ordaintzera behartuta dauden pertsona guztiei buruz, bai zordun nagusiak badira, bai haiekin lotutako erantzule solidario eta subsidiarioak badira.

Horrenbestez, ezinbestekoa da zerga administrazioko organoen arteko lankidetzaren estua, helburuak lortzen dituztela bermatzeko.

2020. urtean auditoretza informatikoko tresnen erabilera sustatzen jarraituko da, zerga arriskuak eraginkortasun handiagoarekin aztertu eta atzemateko eta ikuskatzaileei kontabilitate egoeren eta zerga aitortpenen jatorri diren sistema informatikoetako eragiketa ekonomikoaren erregistroaren edo idatzoharraren osotasunari eta zehaztasunari buruzko iritzi oinarritua izateko aukera ematen dieten behar diren ebidentziak lortzeko.

Alde horretatik, egiaztapen eta ikerketa jarduerak bultzatuko dira bulegoetan, negozio lokaleetan eta jarduera ekonomikoak garatzen diren gainerako establezimendu edo lekuetan, eta, ahal den neurrian, informatika auditoretzako kontrolak erabiliko dira.

Erregularizatzeko eta kobratzeko jardunak esparru hauetan garatuko dira 2020an:

1.) Enpresa taldeak kontrolatzea.

Enpresa talde handietan gehien gerta daitezkeen zerga gorabeheren berariazko kontrolak egingo dira.

Ildo berean, nazioartean dauden enpresa taldeek, hitzarmenez baliatuz, edo eragiketak baloratuz eta kokatuz, edo guztiz artifiziosuak diren eta helburu bakarra, hain zuzen, zergetatik ihes egitea duten sozietate egiturak sortuz, lurralde historikoan tributazioa murriztearren zerga ordainketatik ihes egiteko egindako jarduerak jazarriko dira.

2.) Zerga taldeak kontrolatzea sozietateen gaineko zergan. Kontsolidazio perimetroa, kentzeak, gehitzeak, oinarri negatiboen konpentsazioa eta kenkarien aplikazioa zehaztean, zerga kontsolidazioko araubide berezia zuzen aplikatzen den aztertuko da.

3.) Ekonomia jarduerak egiten dituzten pertsona edo erakundeek aitortutako etekinen kontrol osoa, funtsean inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) Baxuegiak diren edo jarduera sektorearen edo negozio ereduaren batez bestekoaren nabarmen azpitik dauden etekinak aitortzea.

b) Kreditu txartelen, eskudiruzko kobrantzen edo konturako sarreraren bidez kobrantza kudeatzeko sistemari atxikita dauden tresnen titularrak diren pertsonen irregulartasunak aurkitzea.

c) Eduki ekonomikorik gabeko fakturak dauden eta balio erantsiaren gaineko zergan bereziki iruzur talde antolatuetan parte hartzen den zantzuak egotea.

d) Balio erantsi handiko eta zerga arrisku handiko sektoreetan jarduerak egiten dituzten zergadunak izatea, edo beren eragiketen kobrantzaren ehuneko handi bat eskudirutan egitea edo azken kontsumitzaileentzat izatea.

e) Sozietateak ezartzeko kontrol jardunak egotea, horien bidez, pertsona fisikoen zerbitzu oso pertsonalak fakturatzeko dituztenak.

4.) Dagozkien zergen autolikidazioa nahitaez aurkeztu ez duten zergadunak kontrolatzea, zergak itzultzea eskatu badute edo zenbait zergalditan edo aitorpenetan behin eta berriz konpentsatzeko kopuruak egiaztatu badituzte.

5.) Zerga onurak egiaztatzen dituzten autolikidazioak kontrolatzea, sortu diren ekitaldi berean aplikatu beharrekoak izan ala ez, edo aurreko aldietan egiaztatutako kenkariak edo bestelako zerga pizgarriak finkatzeko baldintzak betetzeko epeak amaituta dituztenak.

6.) Sozietateen gaineko zergaren zerga oinarrian egindako zenbateko handien doikuntzak kontrolatzea eta beste aldi batzuetan egindako doikuntzen ondorioz egin behar zirenen jarraipena egitea.

7.) Lotutako pertsonen edo erakundeen arteko eragiketak kontrolatuko dira funts ekonomikorik ez dutenak eta merkatukoaz oso bestelako balio bat ezarrita dutenak detektatzeko.

8.) Zerga administrazioek duten informazioaren arabera, aitorpenetan inkoherentzia handiak dituzten zergadunak kontrolatzea.

9.) Zergadunek zerga administrazioari aitortu gabeko ondasun eta eskubideak dauden aurkitzea, edo aitortu arren, zergaldian aurkeztutako aitorpenetan aitortutako etekinekin bat ez datozenak dauden. Ildo horretan, nazioarteko informazio trukeagatik eta atzerriko ondasun eta eskubideen 720 ereduan adierazitakoagatik agerian gera daitezkeen inkongruentzietan jarriko da indarra.

10.) Analizatu egingo dira, era berean, sozietateen arteko bat egiteak, banantzeak, edo diruz besteko ekarpenak edo sozietate egoitzaren aldaketak, duten zerga garrantzia dela-eta, eta berdin izango da Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren VI. Tituluko VII. Kapituluako zerga araubide berezia eskatu duten edo ez. Halaber, betebeharrak formalak eta materialak ea bete dituzten analizatuko da.

11.) Zergadunek atxikipenak edo konturako sarrerek egin eta sartu dituzten kontrolatzea.

12.) Txekeak kobratu dituzten edo zenbateko handiko eskudiruko mugimenduak egin dituzten zergadunak kontrolatzea.

13.) Ondare sozietateen eta bazkideen zerga ordainketa zuzena egiaztatzea.

14.) Zerga administrazio bati baino gehiagori zergak eragiketa bolumenaren arabera ordaintzen dizkioten erakundeek aitortutako tributazio ehunekoak zuzen aplikatzen direla egiaztatzea, lurralde erkidekoa edo foru lurraldekoa den kontuan hartuz eta, oro har, Ekonomia Itunean ezarritako ordainarazpen arauak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea.

15.) Ez-egoiliarren zerga betebeharrak kontrolatzea, Arabako Lurralde Historikoan egiten dituzten jarduerengatik.

Espainiako lurraldean bizi ez diren pertsonen tributazioa egiaztatzeko jardunak egingo dira, lurralde historikoan egiten dituzten jarduerengatik; zehazki, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei egindako ordainketengatik sartu ez diren atxikipenak erregularizatuko dira.

16.) Fabrikak, zerga gordailuak, zerga biltegiak edo erregistratutako establezimenduak kontrolatzea, fabrikazioko zerga berezien ondorioetarako.

17.) Higiezinaren negozioei dagokien zerga ordainketa osorik kontrolatzea, eskualdaketei eta errentamenduei dagokiena barne.

Azkenik, erregularizazio jarduketari dagokienez, ogasun publikoaren aurkako delituren baten zantzuak antzemanaz gero, Arabako Foru Aldundiak behar diren txostenak igorriko dizkio Fiskaltzari, hark, egoki baderitza, salaketa aurkez dezan.

18.) Zergak biltzeko jardunak.

Arabako Foru Ogasunak zerga zorra eskudirutan kobratzeko jardunak bultzatzen jarraituko du 2020an. Zentzu horretan, Dirubilketa Zerbitzuak nagusiki, jardun hauek egingo ditu:

a) Nahitaezko dirubilketa gainbegiratzea.

b) Zenbateko handiko zordunen ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko espedienteak izapidetu, aztertu eta haien jarraipena egitea, borondatezko epean nahiz betearazte epean, baldin zordunaren kaudimenari eta likideziari buruzko txosten bereziak behar badituzte.

c) Behin-behineko kautela neurriak hartuko dira zerga zorrak kobratzea bermatzeko, kudeaketa, ikuskaritza eta bilketa organoak ere hala eskatuta.

d) Erantzukizun subsidiarioa eta solidarioa zordunaz besteko pertsonengana bideratzea.

e) Zerga zorrak gauzaz ordaintzeko egiten diren eskaerak kudeatzea.

f) Porrot eta kreditu kobraezinen espedienteak izapidetzea.

g) Hartzekodunen konkurtsoan deklaraturako zergadunak jazartzea eta kontrolatzea.